



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GASTEIZKO UDALERRIKO OPOR- JARDUEREN ESKAINTZARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA, 2023


IKERKETA KUANTITATIBOA

2023ko urria

HELBURU NAGUSIAK

OROKORRAK	ZEHATZAK
<p>Vitoria-Gasteiz udalerriko opor-jardueren egungo eskaintza ezagutzea, 4-20 urte bitarteko adin tartean, 2023ko udako oporraldian</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 2023ko udan eskaintzen diren opor-jardueren datu base bat sortzea: jarduera guztiak identifikatzea eta bakoitzeko datu nagusiak biltzea. - Eremu publikoan zein pribatuan/sozialean zer eskaintzen den identifikatzea. - Opor -jardueren eskaintzari dagokionez, errepikatzen diren jarduerak identifikatzea - Jardueretako partaideen profilak ezagutzea, eskaintako plazen ezaugarriak kontuan hartuta. - 2023ko udan burutuko diren jardueren inguruko datu errealak: jarduera mota, partaide kopurua, eta partaideen ezaugarriak.
<p>Vitoria-Gasteizen opor-jardueren antolakuntzan eta kudeaketan inplikaturik dauden eragile guztiak identifikatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gasteiz hirian opor jarduerak antolatzen dituzten eragileen erregistro bat sortzea (Eragileen datu basea). - Eragile bakoitzeko datu nagusiak biltzea, erakunde/elkarte bakoitzari buruzko datu nagusiak, jarduera-testuingurua, eta harremanerako datuak.
<p>Vitoria-Gasteiz udalerriko opor-jardueren eskaintzaren gizarte-kohesioaren ikuspegitik aztertzea eta zentzu honetan eskaintza hobetzeko proposamenak egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Opor jarduerari dagokienez, eremu publikoan zein pribatuan/sozialean egungo eskaintzaren desorekak eta hutsuneak identifikatzea lau dimentsio nagusitan: kokapena (auzoen banaketa), adina, generoa, hizkuntza, behar bereziak eta sarbidea. - Eskaintza osoan identifikatutako gabeziak konpontzeko ekintzak proposatzea, gizarte kohesioa bermatze aldera.

METODOLOGIA OHARRAK




ERAGILEEN DATU BASEAREN SORRERA

Aurrez sortutako datu baseen erabilera

- Udalaren zerrendak
- Gasteizko eskolaz kanpoko aisialdiaren azterketa

Galdetegi irekia (Aztikerren panela)

- 126 inkesta
- Panelisten seme-alabeen opor-jarduerak 2022 eta 2023ko udetan.




JARDUEREN DATU BASEAREN SORRERA

Eragileei galdetegia

- 44 inkesta
- 2023ko antolatutako jarduerak eta informazioa

Datu bilketa sarean

Opor-jardueren eskaintza



ERAGILEEKIN KONTRASTEAK

Jardueren fitxen bidez eragileekin kontrastea

Jarraipen telefonikoa

Fitxa bete duten eragileak: 33 (%30)

Jasotako fitxak: 56 (%33)

Datu errealak

METODOLOGIA OHARRAK

AZTERKETAREN LABURPENA DATUTAN

ERAGILEAK

	Eragile kopurua
<i>Hasierako datu basea</i>	368
2023ko udan opor-jardueraren bat antolatu dute.	109
2023ko udan ez dute opor-jarduerarik antolatu.	95
Zehaztu gabeko eragileak	164

JARDUERAK

	Jarduera kopurua
Eskaintzaren azterketa	168
Partaidetza datu errealak	56


EMAITZA NAGUSIAK

2023ko udan opor-jarduerak antolatu dituzten eragileen sailkapena. Eragile kopurua eta jarduera kopurua


	Eragile kopurua		Jarduera kopurua	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eragile pribatua	84	77,1	134	79,8
Eragile pribatua, irabazi asmoekin	37	33,9	61	36,3
Eragile pribatua, irabazi asmorik gabe	37	33,9	56	33,3
Ikastetxe itunpeko / pribatua	10	9,2	17	10,1
Eragile publikoa	12	11,0	21	12,5
Gasteizko Udalaren sailak	5	4,6	11	6,5
Arabako Foru Aldundia	1	0,9	2	1,2
Beste erakunde publikoak	6	5,5	8	4,8
Guraso Elkartea	13	11,9	13	7,7
IGE publikoa	9	8,3	9	5,4
IGE itunpeko / pribatua	4	3,7	4	2,4
Guztira	109	100,0	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

- Opor-jardueren eragile antolatzaileen % 77,1 pribatuak da:
 - % 33,9 irabazi asmoak dituzten enpresa edo akademiak
 - % 33,9 irabazi asmorik gabeko klub edo elkarteak
 - % 9,2 itunpeko edo pribatuak diren ikastetxeak
- Eragile pribatuek antolatu dituzte 2023ko udako opor-jardueren % 79,8. Erakunde publikoek jardueren % 12,5 antolatu dute eta IGEek % 7,7.
- Aldiz, parte hartzaile kopurua askoz ere altuagoa da erakunde publikoen jardueretan. Kalkulatu da eragile publikoek antolatuko jarduerak partaide kopuru totalaren % 50 inguru jaso dutela. Hauen artean daude Gasteizko Udalaren sail ezberdinek antolatutako 11 jarduera, Arabako Foru Aldundiaren bi eta bestelako erakunde publikoen 8 (Arabako Mendialdeko Kuadrilla, Artium Museoa eta abar).


Jarduerak, eremuen arabera sailkatuta

Jarduerak zein espaziotan egiten den




JARDUEREN DISTRIBUZIO GEOGRAFIKOA

Jardueren distribuzio geografikoa




- Udalak antolatutako ekintzak, gizarte etxeetako sareen bidez, hirian zehar banatzen dira. Beraz, ondoriozta dezakegu kokapenari dagokionez eskaintza publiko erreferentzialak (Udalak eskaintzen dituenak), presentzia orekatu bat daukala hirian zehar.
- Jardueren distribuzio espazialak erakusten digu eragile pribatuak sakabanatuta daudela hiri osoan zehar, hau da, auzoz auzo eragile ugari daude opor eskaintzari ekarpen bat egiten diotenak. Ikerketa honetako datu basea baliatu daiteke Udaletik eragile pribatuekin harremana sortzeko, euren errealitatea ezagutzeko eta lanketa partekatuak planteatzeko.
- Jarduera eskainita dagoen adin-tartea eta distribuzio geografikoaren aldagaia gurutzatzen badira, argi antzematen da Arabatik kanpo egiten diren opor-jarduera eta kanpalekuak bereziki 8 urtetik gorako haurrentzat eskaintzen direla. Aldiz, Gasteiz barruan antolatzen diren jarduerak eta Araban zehar egiten direnak publiko orokorrago bati begira antolatzen dira, baita 8 urtetik azpikoentzat ere.

Txandak egiteko iraupen irizpidea




IZEN EMATEKO KANALA ETA IZEN EMATEAREN TIPOLOGIA


Izen emateko kanala




Izen ematearen tipologia



Abuztuan egiten al dute jarduerarik eragile hauek?




Jarduerak zein adineko haur eta nerabeentzat daude antolatuta




JARDUERA ESKAINTZEN DEN ADIN-TARTEA

- Jardueren erdia baino gehiago 8 eta 12 urte bitarteko adin tarteko herritarrentzat bideratuta dago. Haur txikienean eta nerabeen kasuan, ordea, eskaintza murriztagoa identifikatzen da.
- Eragile publikoen eskaintza media baino herritar zertxobait gazteagoentzat da, izan ere, jardueren gehiengoa 7 eta 12 urteko haur eta nerabeei begira antolatzen da. 14 urtetik gorakoentzat oso eskaintza txikia dute erakunde publikoek.
- Ikastetxe eta IGEek antolatzen dituzte haur txikiarentzat jarduerak. Nahikoa eskaintza al dago 8 urtetik beherako haurrentzat?
- 14-15 urtetik gorako nerabeentzat eskaintza apala dago. Zein dira nerabe horien beharrak eta gustuak? Erakunde publikoen eskaintza birpentsatzea komeni da adin tarte honi begira?

Partaideen banaketa generoaren arabera


- Partaide datu errealei erreparatuta, agerian gelditzen da eskaintza orokorra bada ere, izena-emate prozesuek aurrera egin ahala generoaren araberako desoreka sortzen dela. Desoreka hori azaltzeko bi arrazoi posible:
 - Jarduera mota da generoaren arteko desoreka sortzen duen baldintzatzaile nagusietako bat. Gizonezko gehiago egon dira kirol zehatz batzuetan (igeriketa, skatea edo esku pilota), eta emakumezkoek presentzia handiagoa izan dute beste kirol batzuetan (aerobika, gimnasia edo saskibaloia) edota jarduera artistikoekin lotutako hainbat ekintzetan.
 - Generoen arteko desberdintasunak 8 urtetik aurrera nabarmentzen dira. Adin bakoitzean eskaintzen den jarduera motak genero banaketa baldintzatzen du. 8 urtetik behera nagusitzen diren jarduerak "aisialdia" eta "aisialdia+kirola" eremuei lotuak dira. 8 urtetik aurrera kirol espezifikoek pisua irabazten dute, eta orokorrean espezializazio maila altuagoa dago. Jarduera moten arteko trantsizio honetan somatzen da generoaren arteko bereizketaren arrazoietakoa bat.

Jardueraren hizkuntza




Euskararekin lotutako neurriak baduzue?

Ez; %19,6



Bai; %80,4


Euskararekin lotutako neurriak




- Erakunde publikoek zein IGEek antolatzen dituzten ekintzen % 75 inguru euskaraz eskaintzen dira, eragile pribatuen jardueretan baino askoz ehuneko altuagoa (% 20ren azpitik).
- Jarduera euskara eta gaztelaniaz antolatzen dutenak % 15,5 diren arren, jarduera horietan parte hartzen dute haur eta nerabeen erdia inguruk, multzo honetan sartzen baitira partaide plaza kopuru altua duten jarduera batzuk.
- Ingelesez diren jarduerak partaideen % 10 baino gutxiago jasotzen dute. Dirudienez, gurasoek ez dute opor garaian kurtsoan zehar bezainbeste sustatzen haur eta nerabeek ingelesa ikastea.
- Euskararen aldeko neurri argiak hartzea baino, gehiago nagusitzen da euskararen erabilerarako "aukera ematearen" eta "sustapenaren" dimentsioan. Neurri hauen efikazia maila orokorrean begiraleen gaitasunaren, nahiaren edo borondatearen arabera oso baldintzatuta dago.

HPB ETA MUGIKORTASUN MURRIZTUKOA DUTEN PARTAIDEAK


Hezkuntza premia bereziak dituzten partaideak bai?



Mugikortasun behar bereziak dituzten partaideak bai?




- Jardueren hamarretik lauk (56tik 23) adierazi du HPB dituzten erabiltzaileak jaso dituztela, eta 5ek mugikortasun murriztua duten partaideak jaso dituztela. Errealitate horietara egokitzeko aipatu dituzten neurriak:
 - Jardueren egitarauan egokitzapenak egitea
 - Begirale gehiagoren kontratazioa burutzea
 - HPBren inguruan formazio espezifikoak duten begiraleen kontratazioa
 - Mugikortasun murriztuaren kasuan, instalazioen egokitzapena eta aparatu espezifikoaren erabilpena
- Udalaren baliabideen beharra aipatu da HPB duten erabiltzaileen presentziara egokitzeko. Beraz, azpimarratu dezakegu honetan sakontzeko beharra dagoela, hau da, HPB dituzten umeekin lan egiten duten eragileak ezagutu eta Udaletik errealitate hori nola landu aztertzea.

Jardueraren prezioa, asteko

Eragile pribatuak
215€

**Batezbesteko
orokorra**
194€


**Eragile publiko
eta IGE-ak**
100€




JARDUERETARA SARBIDEA – PREZIOA ETA PLAZA KOPURUA

Batezbestekoa 164 partaide

Partaide kopuru erreala




Izen emate eskaera plaza kopuru erreala baino handiago izan da?




- Prezioa da jarduera batean matrikulatu ala ez erabakitzerako orduan aldagai garrantzitsuenetariko bat eta sarbidea erraztu edo oztopatu dezake.
- Erakunde publikoek eta IGEek antolatutako jarduerak eragile pribatuenak baino merkeagoak dira. Batez beste 100€ eta 215€, hurrenez hurren.
- Partaide askoko ekintza gehienek (Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundiarenak kasu) izen emate kopuru altua izan dute eta plaza kopuru erreala ez da iritsi eskaera hori asetzera. Kasu batzuetan plaza bakoitzeko hogeit hamar izen ematera iritsi da desoreka.
- Eragile publikoek eskaintzen dituzten plaza kopuruak, neurri batean, baldintzatzen ditu eragile pribatuen jardueretako izen emateak. Eragile publikoek zenbat eta plaza gehiago eskaini, orduan eta partaide gutxiago izango dituzte klub edo akademia pribatuek, eta alderantziz.


Zaintza zerbitzuaren eskaintza




Jantoki zerbitzuaren eskaintza



**Jantoki zerbitzua eskaintzen duten
jarduerak, eragile antolatzailearen arabera
(%)**



**Jantoki zerbitzua eskaintzen duten
ekintzak, jardueraren asteko ordu
kopuruaren arabera (%)**



- Zaintza zerbitzua, opor-jardueren heren batek eskaintzen du. Horien artean gutxi batzuek prezioaren barruan eskaintzen dute, eta ia denak eragile pribatuen ekintzetan eta kirol jarduerari lotutako fundazioetan izan ohi dira. Zaintza zerbitzuen gehiengoa ordainpekoa da eta kasu askotan IGE eta ikastetxeek antolatzen dituzte.
- Jantoki zerbitzua bereziki itunpeko ikastetxeek antolatutako jardueretan eskaintzen da eta baita IGEek antolatutakoetan ere. Aldiz, gutxiago eskaintzen da irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen ekintzetan, erakunde publikoek antolatutakoetan eta, are gutxiago, irabazi asmoak dituzten enpresa pribatuek antolatutako aktibitateetan.
- Erlazio zuzena dago jardueraren ordu kopurua eta jantoki zerbitzuaren eskaintzaren artean. Geroz eta ordu gehiagoko aktibitatea izan, orduan eta jarduera gehiagok eskaintzen dute jantoki zerbitzua.

ONDORIOAK

- 2023ko udan antolatu diren jardueren bi heren Gasteizen bertan antolatzen dira. Jarduera motak eta eragile antolatzaileak aktibitatearen kokapena baldintzatzen dutela, neurri desberdinetan:
 - Udalak antolatutako ekintzak hirian zehar banatzen dira. Eskaintza publiko erreferentzialak (Udalak eskaintzen dituenak), presentzia orekatu bat dauka hirian zehar.
 - Hizkuntza, aisialdia edo kirola ekintza nagusi duten opor-jarduerak nagusiak dira, eta horiek Gasteizen zehar banatuta daudela identifikatzen da.
- Eragile pribatuak sakabanatuta daude hiri osoan zehar, hau da, auzoz auzo eragile ugari daude opor eskaintzari ekarpen bat egiten diotenak.

- Opor-jardueren eskaintza partaideen jaioturtearen arabera aztertzen badugu, desoreka handiak identifikatzen dira. Jardueren erdia baino gehiago 8 eta 12 urte bitarteko adin tarteko herritarrentzat bideratuta dago. Haur txikien eta nerabeen kasuan, ordea, eskaintza murriztuagoa identifikatzen da.
 - Eragile publikoen eskaintza media baino herritar zertxobait gazteagoentzat da. 14 urtetik gorakoentzat oso eskaintza txikia dute erakunde publikoek.
 - Ikastetxe eta IGE gehienak Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako dira. Hauen ekintzak 12 urtetik beherakoentzat dira.
 - Aisialdi Taldeekin kontaktatzeko izandako zailtasunak izan direla eta, uste da nerabeentzat antolatzen diren jarduera batzuk ikerketatik kanpo geratu direla eta informazio falta bat badagoela azterketan.
 - Gazte eta nerabeek autonomia handiagoa dute eta aztertu beharko litzateke jasotzen duten eskaintzak beraien behar eta nahiekin nola uztartzen diren.

- Opor-jardueretako partaidetza datu errealei erreparatzen badiegu, agerian gelditzen da generoaren araberako desoreka sortzen dela kasu askotan. Desoreka hori azaltzeko bi errealitate nagusi identifikatu azpimarratzen dira:
 - Jarduera mota da desoreka sortzen duen baldintzatzaile nagusietako bat. Gizonezko gehiago egon dira kirol zehatz batzuetan (igeriketa, skatea edo esku pilota besteak beste), eta emakumezkoek presentzia handiagoa izan dute beste kirol batzuetan (aerobika, atletismoa edota gimnasia) edota jarduera artistikoekin lotutako hainbat ekintzetan.
 - Generoen arteko desberdintasunak 8 urtetik aurrera nabarmentzen dira. Hori azaltzeko adina eta jarduera motaren arteko loturari erreparatu behar zaio. 8 urtetik behera nagusitzen diren jarduerak aisialdiarekin lotuta daude gehien bat. 8 urtetik aurrera, aldiz, kirol espezifikoek pisua irabazten dute, eta espezializazio maila altuagoa dago. Jarduera moten arteko trantsizio honetan somatzen da generoaren arteko bereizketaren arrazoi etako bat.

- Euskarak presentzia nagusia du jardueren ia heren batean, hau da, jarduera horiek soilik euskaraz eskaintzen dira.
- Beste aldetik, galdetegia bete duten eragileen % 80,4k (56tik 45ek) euskararen aldeko neurriren bat hartzen duela aipatzen du.
- Elebidunak diren jardueren kasuan, ondoriozta daiteke euskararen aldeko neurri argiak hartzea baino, gehiago gelditzen dira euskararen erabilerarako “aukera ematearen” eta “sustapenaren” dimentsioan. Hortaz, euskararen aldeko neurria erabat boluntarista da, eta neurri hauen efikazia maila orokorrean begiraleen gaitasunaren, nahiaren edo borondatearen arabera oso baldintzatuta dago.
- Eragile motaren arabera euskarak duen presentzia asko aldatzen da. Izan ere, erakunde publikoek edo IGEEK antolatzen dituzten jardueren hiru laurdena euskara hutsez eskaintzen da eta gainera guztiek hartzen dituzte euskara sustatzeko neurriak. Beste muturrean, eragile eta enpresa pribatuek antolatutako opor-jardueren % 18 inguru da euskara hutsean.

- Jardueren hamarretik lauk baino gehiagok adierazi du HPB dituzten erabiltzaileak jaso dituztela, eta ia hamarretik batek mugikortasun murriztua duten partaideak jaso dituztela. Errealitate horietan aurkitzen diren eragileek hiru dimentsio desberdineko neurriak aipatu dituzte:
 - Jardueren egitarauan egokitzapenak egitea.
 - Begirale gehiagoren kontratazioa burutzea.
 - HPBren inguruan formazio espezifikoak duten begiraleen kontratazioa.
 - Mugikortasun murriztuaren kasuan, instalazioen egokitzapena eta aparatu espezifikoaren erabilpena.
- Bi kasu zehatzetan, Udalaren baliabideen beharra aipatu da HPB duten erabiltzaileen presentziara egokitzeko.

- Nahiz eta jardueraren ordu kopurua prezioaren baldintzatzaile nagusia izan, eragile antolatzailearen tipologiaren arabera ezberdintasun handiak antzeman daitezke prezioan, erakunde publikoek eta IGEek antolatutakoa eremu pribatua baino merkeagoa izanda.
- Partaide askoko ekintza gehienek izen emate kopuru altua izan dute eta plaza kopuru erreala ez da iritsi eskaera hori asetzerara. Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia edota Kutxabankek antolatuko hainbat jarduera sar daitezke zerrenda honetan.
- Eragile publikoek eskaintzen dituzten plaza kopuruak, neurri batean, baldintzatzen ditu eragile pribatuen jardueretako izen emateak. Hau da, eragile publikoek zenbat eta plaza gehiago eskaini, orduan eta partaide gutxiago izango dituzte klub edo akademia pribatuek, eta alderantziz.

- Orduategia aztertuta, jarduera gehienek zaintza eta kontziliazio beharrei erantzuten diete. Jardueren % 70 astean 20 ordutik gorakoa da, hau da, jarduera horietan partaideak gutxienez egunean 4 ordu egoten dira.
- Zaintza zerbitzua, opor-jardueren heren batek eskaintzen du. Horien artean gutxi batzuek prezioaren barruan eskaintzen dute. Hala ere, gehiengoa ordainpekoa da eta kasu askotan IGE eta ikastetxeek antolatzen dituzte.
- Egutegiari dagokionez, jarduera gehienak ekaina amaieran hasten dira (ikasturtearen amaierarekin batera) eta uztailean zehar garatzen dira. Abuztuan, ordea, aktibo dagoen eskaintza nabarmen murrizten da. Abuztuan egiten diren aktibitateen artean ez dago IGE edota itunpeko ikastetxeek antolatutako jarduerarik. Izan ere, soilik erakunde publikoek antolatutako ekintza batzuk eta eragile edo enpresa pribatuen batzuk egoten dira martxan abuztuan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GASTEIZKO UDALERRIKO OPOR- JARDUEREN ESKAINTZARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA, 2023

IKERKETA KUANTITATIBOA

2023ko urria